



Janine COSTA / AFP

IKUSMIRA

HERRITIK HERRIRANTZ, CASTILLO PERUKO PRESIDENTEA DA JADA

«Ez dut Pizarro jauregitik aginduko, kolonialismoaren sinboloekin hautsi beharra dugulako. Horregatik, erai-kin honetan Kulturen Ministerio berria egongo da; gure herrien historiaren museo gisa erabiltzeko. Hezkuntza eta pobrezia kontrako borroka nire gobernuaren lehentasuna izango da», adierazi zuen presidente banda

jarri ziotenean. Kargua «Peruko herri guztien izenean, indigenen, nekazarien, gazteen, profesionalen izenean» zin egin zuen asteazkenean. Ez da erraza izan une horretara iristea. Keiko Fujimorik hauteskundeak bigarren itzuliko botoen zenbaketan iruzurra egon zela salatu zuen, nahiz eta justiziak berak kontrakoa esan. Jada nahasita zegoen giro politikoa gehiago nahastea eta Castilloren izendapena hilabete eta erdiz luzatzea lortu zuen. Ogibidez maisua den presidentek gobernatzeko modu berri baten alde egin zuen. Bere helburua, neoliberalismoari mesede egiten dion egungo Konstituzioa aldatzea da; bidean, baina, aurkari asko ditu. Ainar Lertxundi